

ALKOHOLDUN EDARIAK ETA TABAKOASUSTATZEARI, IRAGARKI- ETAN JARTZEARI, SALTZEARI ETA KONTSUMITZEARI KONTROL- NEURRIEN ORDENANTZA ARAUPETZAILEA

Osasuna, ingurugiroa, adin txikikoen heziketa, aisialdiaren erabilpen egokia eta beste batzuk, hiritarren intereseko baloreak dira, eta hauek babesteko, giza taldearen onuran, botere publiko guztien aldetik inolako bereizketarik gabe eta bereziki Udal administrazioaren ekintza eraginkorra eskatzen da.

Drogamenpekoetasunen arloko Aurrezaintza, Laguntza eta Gizarteratzeari buruzko 18/98ko ekainaren 25eko Legeak Euskal Autonomi Erkidegoan eskuduntzak ematen dizkio arlo hauetan Udalerriari eta balore hauen defentsari aurre egiten dio beste gai zehatz batzuen erabilpen eta kontsumoari dagokionez. Hauen kontrolarekin erlazionatutako jarduerak direla eta, lehenengoa eta berebiziko erantzukizuna duena instituzionalizatutako drogak deiturikoen (alkohola eta tabakoa) zerikusia du, eta nabarmentzen du dauden gizarte erabileren ondorioz, ekintzak beti ikuspegi pedagogiko batetik planteatu beharko direla gizartearen errefusatzeari ekiditeko, aldi berean ahalik eta gizarte eragile desberdin gehien adostasuna bultzatuz.

Legeak zehazten dituen Ordenantza guztien antzera, aipatutako gaien kontsumoa, eskaintza edo iragartzearekin erlazionaturik dauden neurriei mugak jartzea erregulatzen du, baina ez du helburu bezala giza-banakoaren erabilpena debekatzea, Legeak adierazten duen izaera berberarekin, kontsumoak daukan arriskuaz hiritarrak babestea baizik, bereziki adin txikikoak; ez du helburu nagusi erabilpena aurrezaintzea bai ordea, gehiegizko kontsumoa ekiditea, honi lotutako kaltearen murriztearen ikuspegitik eta, aldi berean ahal dela adostutako eta aurrezaintzako neurriei lehentasuna ematea proposatzen du zigortzekoen aurretik.

Udal Ordenantza bat garatu eta martxan jartzeko, arestian aipatutako aurrezaintza eremuari dagokionez udal ordezkariak bete ahal duten papera garrantzitsua da; 18 urte baino gazteagoi gai legalen salmenta eta leku zehazetan kontsumoa mugatzeaz ari garenean batik bat.

Beharrezkoa da, ondore guztietarako, arlo honetan Udal Administrazioaren jarduketak agintzen duen unean uneko xedapenak hartzea. Hau, aipatutako Legearen markoan, honako Ordenantza honekin lortu nahi da, Udal honen ustez indartu beharreko lehentasun, konpromiso eta jarduera eremuak argitu eta nabarmentzen ditu, Lege hau osotasunean betetzeari kalterik eragin gabe.

I KAPITULUA: ALKOHOLDUN EDARI ETA TABAKO IRAGARKIEI ETA HORIEN KONTSUMOA SUSTATZEKO NEURRIEI MUGAK JARTZEA

Jarraian azaltzen diren mugak bereziki Udal Administrazioa derrigor-

tuko dute beti, honako Administrazio honek parte hartzen duen ekitaldi, jolas eta jai esparruetan edo tabako eta edari alkoholdunekin erlazionatutako emanaldietan.

A) ALKOHOLDUN EDARI ETA TABAKO IRAGARKIEI ETA HORIEN KONTSUMOA SUSTATZEKO NEURRIEI MUGAK JARTZEA

1. artikulua.– Iragarkiek bete beharreko baldintzak.

Iragarki horiek ezingo dira bereziki adin txikikoei zuzenduta egon, eta ezin izango dira gazteak alkoholdun edariak kontsumitzen edo tabakoa erretzen agertu.

2. artikulua.– Sustatzea.

Azoketan, erakusketetan edo antzeko jardueretan alkoholdun edariak sustatu nahi direnean, sustatze hori gainerako guneetatik bereiztutako tokietan egingo da 18 urte baino gazteagoentzat legeak ezartzen duen muga aipatu eta toki ikusgarri batean jarriz. Ostalaritza edo antzeko erabilpena duten lokaletan alkoholdun edari marken sustatzea xede duten jaien iragarpenak, derrigorrean lokaletako barne eremura –ikuskatzea– daude murriztuak.

3. artikulua.– Kanpoko iragarkiak.

Debekatuta egongo da kanpoko iragarkietan alkoholdun edari eta tabako iragarkiak egitea, batez ere horien kontsumoa bultzatzera zuzendutakoak, sustantzia horien kanpora begirako salneurrien edo eskaintza lehiakorren bitartezkoak. Kanpoko iragarkitzat hartuko dira erabilera orokorrekoak diren guneetatik doazen edo gune horietan dauden nahiz leku irekietan dauden pertsonen arreta irudiaren edo soinuaren bidez erakartzeko gai diren iragarkiak adin txikikoen pasaguneetatik hurbil badaude.

4. artikulua.– Barruko iragarkiak.

1.– Debekatuta egongo da alkoholdun edari eta tabako iragarkiak jartzea ondorengo leku publikoetan:

a) Batez ere 18 urtez beherako pertsonentzat diren lokaletan.

b) Kirol-zentroetan, osasun-zentroetan, ikastetxeetan eta horietako sarbideetan.

c) Zinema eta ikuskizun-aretoetan, gaueko azken saioan izan ezik.

d) Garraio publikoen barruko aldean eta geltokietan.

2.– Debekatuta egongo da alkoholdun edari eta tabako iragarkiak egitea postontzietan orriak sartuta, posta bidez bidalita, telefonoz deituta eta, oro har, dena delako bizilekura bidalitako mezuen bidez, salbu eta 18 urte baino gehiagoko pertsonen izenean bidaltzen badira, edo mezu horiek denak, kalitateari eta kantitateari dagokienez, guztira bidaltzen den publizitatearen barruan ardura gutxikoak badira.

5. artikulua.– **Komunikabideetako iragarkiak.**

1.– Udalerrian argitaratzen diren egunkari, aldizkari eta gainerako argitalpenak nahiz grafikoki erregistratu eta erreproduzitzeko beste edozein bitarteko, baita soinu bidezkoak edo udalaren partaidetza edo babespekoak ere, ondorengo mugen pean egongo dira:

a) Ezin izango da horietan alkoholdun edari edo tabako iragarkirik sartu, 18 urtez beherakoei zuzendutakoak baldin badira.

) Gainerako kasuetan, debekatuta egongo da lehenengo orrialdean, kirolei buruzko orrialdeetan, 18 urtez beherakoei zuzendutako tarteetan eta denbora pasatzekoak dituzten tarteetan alkoholdun edari eta tabako iragarkiak jartzea.

6. artikulua.– **Beste iragarki-mota batzuk.**

Kiroleko, hezkuntzako, kulturako edo gizarteko dena delako ekitaldia dagoela baliatuz edo horiek babesteko aitzakiaz, ezin izango da alkoholdun edari edo tabako iragarkirik egin; debeku bera egongo da lehiaketa, zozketa eta kontsumoa eragiteko antzeko beste aukerentzat ere, batez ere jaietan eta patroi-jaien ospakizunetan.

B) ALKOHOLDUN EDARIAK ETA TABAKOA ESKURATU ETA SALTZEARI JARRITAKO MUGAK

7. artikulua.– Alkoholdun edariak.

1.– Ondorengo pertsoneri ezin izango zaie alkoholdun edaririk saldu, ez eta eskueran jarri ere 18 urtez beherakoei.

2.– Makina automatikoen bidez ezin izango da alkoholdun edaririk saldu edo eskueran jarri, makina horiek establezimendu itxietan ez baldin badaude, eta pertsona jakin batek ikusteko moduan egon 1. lerroaldean aipatzen diren debekuak betetzen direla ziurtatzeko.

3.– Ondorengo lekuetan ezin izango da alkoholdun edaririk saldu, ez eta eskueran jarri ere:

a) Burutzen dituzten jarduerengatik eta eskaintzen dituzten zerbitzuengatik, batez ere 18 urtez beherakoentzat diren tegi eta zentroetan (kultur-, kirol- eta jai izaerakoetan).

b) Gizarte etxe, jai-areto eta oro har, jabetza pribatuko aretoak erabiltzaileak nagusiki adin txikikoak direnean.

4.– Ondorengo lekuetan ezin izango da 20 gradu ehundar baino gehiagoko alkoholdun edaririk saldu, ez eta eskueran jarri ere:

a) 18 urte baino gehiagoko ikasleentzako irakaskuntza-zentroetan.

b) Administrazio publikoen egoitzetan.

c) Kirol instalazioetako establezimendu, taberna eta kafetegietan eta osasun zentroetan, eta dena dela, bereizita egon beharko dira, hesiturik eta seinaleak jarrita.

5.– Aurreko lerroaldeetan aipatu diren leku guztietan, duten debekuaren berri emango da, erregelamendu bidez zehaztuko den seinaleak jarrita. Udalak informazioa eskuraraziko du udal bando edo iragarki kartelen bitartez.

8. artikulua.– **Tabakoa.**

1.– Debekatuta egongo da tabakoa, tabakotik sortutako produktuak edo imitazioak 18 urtetik beherako pertsoneri saltzea edo eskueran jartzea, horiek kontsumitzera bultza baditzake.

2.– Debekatuta egongo da tabakoa saltzea:

a) Makina automatikoen bidez, makina horiek establezimendu itxietan ez baldin badaude, eta pertsona jakin batek ikusteko moduan egon ere, 1. lerroaldean aipatzen diren debekuak betetzen direla ziurtatzeko.

b) Osasun-zentroetako eta 18 urtera arteko ikasleentzako ikastetxeetako gune guztietan.

c) Kirol-instalazioetan.

d) Burutzen dituzten jarduerengatik eta eskaintzen dituzten zerbitzuengatik, batez ere 18 urtez beherakoentzat diren tegi eta zentroetan.

Era berean, indarrean dagoen legerian ontziratzeke eta etiketatzeke jarritako arauak betetzen ez diren guztietan, debekaturik dago beraz zigarro solteak saltzea 18 urtez gorakoei ere.

C) ALKOHOLDUN EDARI ETA TABAKO KONTSUMOA KONTROLATZEA, KONTSUMO HORREK BESTE PERTSONA BATZUEI ERAGITEN BADIE.

9. Artikulua.- **Tabakoa kontsumitzea.**

1.- Ezin izango da erre haurdun dauden emakumeek lan egiten duten edozein lan-esparrutan.

2.- Artikulu honen 5. Lerroaldean aipatzen diren salbuespenak egongo diren arren, ezin izango da erre:

a) Haurtzaindegietan eta 18 urtez beherakoentzako gizarte-laguntza zentroetan.

- b) Osasun-zentro, osasun-zerbitzu eta osasun-guneetako leku guztietan.
- c) Gizarte-zerbitzu zentroetan.
- d) Ikastetxeetan.
- e) Administrazio publikoetako gune guztietan, aire zabalean daudenetan izan ezik.
- f) Jakiak egin, eraldatu, manipulatu, prestatu edo saltzen diren lekuetan, batez ere jaki horiek jateko diren lekuetan izan ezik. Dena dela, jakien maneatzailerik debekatuta izango dute erretzea.
- g) Erabilera publiko orokorrekoak diren lekuetan, irakurtzeko lekuetan edo erakusketak egitekoetan, hala nola museoetan, liburutegietan eta hitzaldiak eta erakusketak egiteko aretoetan.
- h) Merkataritza-gune itxietan, jendea sarritan biltzen bada horietan.
 - i) Igogailuetan eta jasogailuetan.

3.– Antzokietan, ikuskizun publikoetarako edo kirol-ikuskizunetarako beste toki itxietan, talde-garraio geltokietako itxarongeletan, administrazio publikoko egoitzetan eta erretzerik ez dagoen beste edozein lekutan, erretzaileentzako leku berezituak egokituko dira, horretarako direla argi eta garbi adierazita. Ezin baldin bada erretzaileentzako leku bereziturik egokitu, inon ere ezin dela erre adieraziko zaie erretzaileei, seinale egokien bidez.

4.– Aire zabalean ez dauden merkataritza-guneetan, pertsona-kopuru handia ibiltzen baldin bada bertan, nabarmen adierazi beharko da zeintzuk diren erretzeko aukera eskaintzen duten guneak; izan ere, kontrol gutxi dagoenez leku horietan eta arriskua handia denez, ez da araua bete gabe geratzerik nahi.

5.– Ikastetxeetan zuzendaritzak bereziki horretarako aukeratutako lekuetan baino ezin izango da erre. Leku horiek, dena den, ezingo dira izan

irakasleak eta ikasleak elkarrekin egoten diren lekuak, ikasleak 18 urtez beherakoak baldin badira.

II. KAPITULUA: ERAKUNDE ANTOLAMENDUA ETA GIZARTE EKIMENAREN SUSTAPENA

10. Artikulua.- Erakunde antolamendua eta gizarte ekimenaren sustapena.

Udalak Droga-menpetasunen Aurrezaintza Komunitarioaren Udal Batzordearen eratzea sustatuko du, gizartearen partaidetza bermatu eta honako araudi honen aplikazioaz arduratuko da. Lege honi dagokion ekintzen berri emango zaio eta honi buruzko informazioa eta laguntza jasoko du, hau guztia Legeak aurreikusitako << DROGA-MENPETASUNEN TOKI EGITASMOA>>-ren babespean.

Batzorde honen ekintzak honako hauen arabera eratuko dira; araudi honen berdintasuneko aplikazioa, lehendabiziko xedea aurrezaintza zigorra jartzearen aurretik, Udal Administrazioaren parte hartzeaz gain, gizarte alor garrantzitsuenen interbentzioa foro gisara alde kaltetuak entzunak izan daitezzen, baliabide legal eta euren esku-bideen kalterik gabe, batzuentzat eta besteentzat arazoak ahalik eta positiboan eta adostasunez konpontzeko asmoz.

Udalak, Ordenantza honek dituen helburuetara zuzendutako ekimen pribatuak sustatu eta diruz lagunduko ditu. Era berean, eskatzen duten lokalei Ordenantzak eragiten dituzten araei buruzko kartelak emango zaizkie.

III KAPITULUA: DROGAK KONTSUMITZEA AURREZAITZEKO NEURRI OROKORRAK.

11.Artikulua.- Poliziaren jarduera.

Udalerrian aritzen den Euskal Autonomia Erkidegoko poliziak, Udaltzaingoak batik bat, legez kontrako droga-salerosketari buruzko ikerketak aurrera eramateaz gainera, dagozkion ekintza guztietan elkarlanean jardungo du droga-eskariaren eta -kontsumoaren aurrezaintza arloan. Ildo honetatik jarraituz, adin beherakoentzat alkohol eta tabakoaren salerosketa legezkoa ez denez, ekintza hauen egileen identifikazioa eta dagokion udal erakundearen salaketari hasiera ematean aritu beharko da, ez bakarrik ostalaritzako lokaletan batez ere jai egunetan zabaldua dauden jakiak saltzen dituzten komertzioetan, gazteen kontsumo ohitura berriak kontuan hartuz.

IV KAPITULUA: ARAUHAUSTEAK ETA ZIGORRAK

12. Artikulua.- Arauhausteak

Droga-menpetasun gaien Gizarteratze, Laguntza eta Aurrezaintzari buruzko Euskal Autonomi Erkidegoaren legeetan arauturikoetan honako hauek izango dira administrazio-arauhausteak: honen gainean Euskal Legebiltzarreak emandako Lege maila duen araudian tipifikaturiko egite eta ez-egiteak, benetan burutu badira, eta inolaz ere baztertu gabe egite eta ez-egite horien ondorioz sor daitezkeen erantzukizun zibil, penal edo beste-lakoak.

13. Artikulua.- Arauhauste-motak

Administrazio-arauhausteak honela sailkatzen dira; arinak, larriak eta oso larriak.

2- Ordenantza honetan udalerriarekin legalki eskuduntza duten arauhausteak soilik tipifikatzen dira, Autonomi Erkidegoko legeetan tipifikatuta izan daitezkeen beste arauhauste larri edo oso larriak inolaz ere baztertu gabe, Euskal Administrazioari dagokion erakundeen eskuduntza-koak.

Arauhauste arinak izango dira:

Ordenantzaren 2. Artikuluan ezartzen diren edari alkoholduen sustatzeari buruzko betebeharrak ez betetzea, Euskadiko Autonomi Erkidegoko legeetan ezarritako graduazio altuagorekin, beti ere jarrera honek osasunerako kalte larria edo arriskurik sortzen ez duen bitartean;

Ordenantzaren 3. artikuluan adierazten diren tabako eta alkoholduen edarien kanpo publizitateari buruzko betebeharren ez betetzea, beti ere jarrera honek osasunerako kalte larria edo arriskurik sortzen ez duen bitartean;

Ordenantzaren 4. Artikuluaren 1 atalean ezartzen diren tabako eta alkoholduen edarien barne publizitateari buruzko betebeharren ez betetzea, beti ere jarrera honek osasunerako kalte larria edo arriskurik sortzen ez duen bitartean;

Ordenantzaren 4. Artikuluaren 2 atalean ezartzen diren tabako eta alkoholduen edarien publizitateari buruzko betebeharren ez betetzea, beti ere jarrera honek osasunerako kalte larria edo arriskurik sortzen ez duen bitartean;

Ordenantzaren 6. Artikuluan ezartzen diren publizitate motari buruzko betebeharren ez betetzea, beti ere jarrera honek osasunerako kalte larria edo arriskurik sortzen ez duen bitartean;

Ordenantzaren 7. Artikuluan ezartzen diren alkoholduen edarien salerosketari buruzko betebeharren ez betetzea, beti ere jarrera honek osasunerako kalte larria edo arriskurik sortzen ez duen bitartean;

Ordenantzaren 8. Artikuluan ezartzen diren tabakoaren salerosketari

buruzko betebeharren ez betetzea, beti ere jarrera honek osasunerako kalte larria edo arriskurik sortzen ez duen bitartean;
Ordenantzaren 9. Artikuluan 1 eta 2 atalean adierazten diren lekuetan erretzeko betebeharraren ez betetzea:

Euskadiko Autonomi Erkidegoko legeak droga-menpetasun gaian edo Ordenantzak berak ezarritako beste edozein betebeharraren ez betetzea, akats larri edo oso larri bezala tipifikatuta ez dagoenean.

Arauhauste larriak dira honako jarrera hauek, osasunerako kalte larria edo arriskurik sortzen ez duen bitartean.

a) Ordenantzaren 2. Artikuluan ezartzen diren edari alkoholduen sustatzeari buruzko betebeharrak ez betetzea, Euskadiko Autonomi Erkidegoko legeetan ezarritako graduazio altuagorekin;

Ordenantzaren 3. artikuluan adierazten diren tabako eta alkoholduen edarien kanpo publizitateari buruzko betebeharren ez betetzea;

Ordenantzaren 4. Artikuluaren 1 atalean ezartzen diren tabako eta alkoholduen edarien barne publizitateari buruzko betebeharren ez betetzea;

Ordenantzaren 4. Artikuluaren 2 atalean ezartzen diren tabako eta alkoholduen edarien publizitateari buruzko betebeharren ez betetzea;

Ordenantzaren 6. Artikuluan ezartzen diren publizitate motari buruzko betebeharren ez betetzea;

Ordenantzaren 7. Artikuluan ezartzen diren alkoholduen edarien salerosketari buruzko betebeharren ez betetzea;

Ordenantzaren 8. Artikuluan ezartzen diren tabakoaren salerosketari buruzko betebeharren ez betetzea;

Ordenantzaren 9. artikuluan 5, 6 eta 7 ataletan aipatzen den erretzaileentzako alderik ez egokitzea ere arauhauste larritzat hartzen da.

14. Artikulua.- Berrerortze eta errepikatzea.

1.- Ordenantza honen ondorioetarako, arauhauste bat egin duenak izaera bereko beste arauhauste bat egiten bada, urtebeteko epean, eta erabaki irmoz hala aldarrikatu bada, berrerortzea izango da hori.

2.- Izaera bereko arauhaustetzat hartuko da Ordenantza honen zigor-erregimenean jasota dagoena eta 12. artikuluko sailkapenaren arabera mota berekoa dena.

15. artikulua.- Erantzukizuna.

1.- Ordenantza honetan jasota dauden arauhausteen administrazio-erantzukizuna arauhaustea egin duen pertsona fisiko nahiz juridikoari

egotziko zaio. Ondorio horietarako, egiletzat haxe hartuko da:

a) Legean jasota dagoen jokabidea gauzatzen duen pertsona fisiko nahiz juridikoa, bai zuzenean bai beste pertsona batez baliaturik. Azken hori ere hartuko da egiletzat, berak nahita jokatzeko badu.

b) Legean jasota dagoen jokabidea gauzatu ahal izateko ezinbestez burutu behar den egintza gauzatzen lagundu duten pertsona fisiko nahiz juridikoak.

2.- Legeak arauhausterik ez gertatzea zaintzeko jarritako betebeharra betetzen ez duena erantzule solidarioa izango da egilearekin batera; era berean, erantzule solidario izango dira arauhaustea egiten den establezimendu, zentro, lokal edo enpresaren titularrak.

3.- Erantzulea pertsona juridikoa denean, zigortu nahi den egite edo ez-egite zehatzean pertsona haren borondatea eratu duten pertsona fisikoei egotziko zaie erantzukizuna.

16.- Artikulua- **Zigorrak**

1.- Ordenantza honen xedea aurrezaintza zigorraren ordezkatzeko edo murrizteko saiakera egingo da, adostutako aurrezaintza ekintza eraginkorrenatik ordezkatzuz; batik bat lehenengo arauhaustearen ondoren.

2.- Lege honetan jasota dauden arauhausteak egiteak honako zigor hauek ekarriko ditu bere baitan:

a) Ohartarazpena.

b) Isuna.

c) Jarduera aldi baterako etetea eta/edo, hala badagokio, establezimendu, zentro, zerbitzu, lokal edo enpresa aldi baterako ixtea, erabat edo zati

batean, bi urtez gehienez.

d) gehienez bi urte bitarteko epean Autonomia Erkidegoaren diru-laguntzarik eskuratzeko debekua.

3.-Aurreko zigorretariko bat ezartzeak arauhaustearekin zuzeneko zerikusia duten salgaien edo gauzen dekomisua ekarriko du ondorio osagarri gisa.

4.- Aurreko atalean araututako dekomisuaren eraginkortasunerako, Ohiko Prozedura Administratibo eta Administrazio Publikoen Erregimen Juridikoaren gaian estatuaren oinarrizko legean eta Euskal Administrazio publikoen Zehatzeko Ahalgoaren erregulatzaileraren 2/98ko otsailaren 20ko Eusko Legebiltzarreko Legeak ezarritakoaren arabera, erakunde izapidegileak aipatutako objektu edo merkantzien aldi baterako dekomisua erabaki ahal izango du.

5.- Aipatutako 2/98ko otsailaren 20ko Euskal Legebiltzarreko Legearen 32 artikuluan ezarritakoaren ondoretarako, funtzionario ikuskatzaileen kautelazko neurriak salbuespenako hartzearen arautzailea, honako hauek zerbitzuan dauden udaltzainak izango dira ustez arauhausteak direnak baieztatzeko unean. Agente hauek akta bat egingo dute zeinean hartutako kautelazko dekomisuaren neurriak azalduko diren, eta horren kausa eta xedea. Atal hau arautzen duen kautelazko neurria ezarri den kasuetan dagokion zigor prozedurari premiazko hasiera emango zaio, eta haste ekintzan zigor eskuduntzako organo titularrak zehaztuko du, zio moduan aipatutako neurrien aldatzea, mantentzea edo ezeztatzea, zigortzeko prozedurari buruzko Autonomi Erkidegoaren legean ezarritako osteko alegazio tramiteari hasiera emanez.

6.- Zigortzeko jardunbidetik eratorritako administrazio-erantzukizunez gain, arauhaustearen ondorioz aldatutako egoera leheneratzeko eska dakieke erantzuleei, eta arauhaustearen ondorio diren kalte eta galerengatiko ordainak ere eska dakizkieke.

51. artikulua.– **Zigorren mailaketa.**

1.– Isunen zenbatekoa eta gainerako zigorren maila zehazteko, eskudun organoak honako irizpide hauek hartuko ditu aintzat:

a) Osasunerako eragindako arrisku edo kaltearen larritasuna. Zirkunstantzia honen barruan ulertuko da larritasuna handitu egingo dela bat-

zordeak ustezko arauhausteagatik eragindakoen adina txikiagoa denean;

- b) Erruduntasun–maila edo asmoa.
- c) Gizartean sorturiko asaldura edo eragina.
- d) Lorturiko onuraren zenbatekoa.
- e) Arauhauslearen egoera ekonomikoa.
- f) Berrerortzea eta errepikatzea.

2.– Zigorra neurtu eta mailakatzeko, hurrengo hauek hartuko dira aringarri oso kualifikatutzat:

- a) Ustezko arauhausleak, galarazitako jarduerak eteteko eskatzen zaionean, eskaera horri jaramon egitea.
- b) Arauhausleak frogatzea, zigor-espedienteari buruzko erabakia hartu baino lehen eta zuzenbidez baliozko diren bideetatik, jardunbideari ekitea ekarri zuen jokabidearen ondorioak leundu edo erabat zuzendu dituela.

18. artikulua.– Zigorrak ezartzea.

1.– Zigorrak honela ezarriko dira:

- a) Arauhauste arinengatik ohartarazpena eta/edo 500.000 PZTArainoko (3.005,06 euro) isuna ezarriko da.
- b) Arauhauste larriengatik, 500.001 (3005,06 euro) eta 2.500.000 PZTA

(15.025,30 euro) bitarteko isuna eta/edo jarduera aldi baterako eten eta/edo establezimendua, zentroa, lokala edo enpresa, erabat edo zati batean, itxi bi urterako gehienez.

Arauhauste larriengatik ezarritako zigorrak izatekotan, baieztatuak izan ostean, hartutako erabakiaren aitorpena egingo da, eta beharrezkoa balitz, zigor osagarri gisa lege autonomikoan aurreikusitako Autonomi Erkidegoko edozein laguntza publikora aurkezpen debekua.

2.- Toki Administrazioak jasotako kopurua droga-menpetasunen aurrezaintza estrategiak egin edo egitasmoak finantzatzeko bideratzen saiatuko da.

3.- Behar den baimena ez duten establezimenduak, aurkitutako akatsak zuzendu arte, ixteak edo haien jarduera, jarduteko eskatzen diren baldintzak bete arte, eteteak ez du zigor-izaera izango. Honako egoera hauetan Toki erregimeneko legedian ezarritako prozedura legala jarraituko da.

19. artikulua.– **Iraungitzeen erregimena.**

1.– Ordenantza honetan oharmandako administrazio–zigor larri edo arin sailkapenaren arabera bi urtera edo sei hilabetera preskribituko dute.

2.– Hutsegite larriak egiteagatik ezarritako zigorrek bi urtera preskribituko dute, eta hutsegite arinek urtebetera.

20. artikulua.– **Zigortzeko jardunbidea.**

1.- Hiritar guztiek duten erantzukizun eta eskubidearen erabilpenean, gizabanakoa edo kolektiboa, honako Ordenantza honen ez betetzeagatik salaketa bat ipini ahal du eskuduntza duten udal instantzietan, besteak beste; Udaltzaingoa, Udal Batzordea, Alkatetza, etab.

2.- Zigortzeko ahalmenaz baliatzeko, Estatuko oinarrizko legerian eta Euskal Herriko Autonomi Erkidegoko administrazio publikoen zigortzeko ahalmena arautzen duen legerian agindutakoari jarraituko zaio.

3.- Dagokion ebazpenari alde zuzenarekin, Droga-menpetasun Aurrezaintza Komunitarioaren Udal Batzordearen proposamenak edo iradokizunak bildu ahal izango dira.

21- Artikulua.- **Erabakia hartzeko eskumena.**

1.- Alkatetzak arauhauste arinei dagozkien espediente guztiak ebazteko eskumena du, eta Ordenantza honetan bereziki araututa azaltzen

diren larriak ere. Honako eskumen hau Administrazio Publikoen Erregimen Juridiko eta Prozedura Administratibo Arruntari buruzko lege orokorrean aurreikusitakoaren arabera beste inoren esku utzi ahal izango da.

2.- Gainontzeko arauhauste larriak, Autonomi Erkidegoaren legerian tipifikatuak daudenak, eta edozein kasutan ere, oso larri moduan tipifikatuak daudenak, droga-menpetasun arloan Autonomi Erkidegoaren eskumena duen Saileko Organoak ebatzi eta tramitatu beharko ditu.

3.- Espedientea izapidetzeko arduraduna edozein unetan ohartzen bada zigortzeko ahalmena ez dagokiola bere administrazioari, Alkatetzaren bitartez, ahalmen hori daukan Administrazioari igorriko dio espedientea, eta prozedura eten zen puntutik abiatuko dira izapideak.

4.- Toki Administrazioak izapidetzen dituen espedienteen berri eman-go dio Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailari, hasieraren ebazpen datatik zenbatuta hamar lan egunetako epean. Hauxe, arestian aipatutakoaren kopia fede-emaila baten bidez egingo da, eta era berean Ordenantzaren c) 17.1 artikuluan aurreikusitakoarekin bat arauhauste larriagatik zigortuak izan direnen ebazpenenak.

Alkateak,
PABLO GOROSTIAGA GONZÁLEZ